

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2708

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 17koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, garapenerako lankidetza-proiektuetarako 2015erako laguntzen deialdia iragartzen duena.

Ebazpen honen bidez, otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan biltzen diren aurreikuspenak betetzen dira 2015erako. Dekretu horrek Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako programetarako laguntzak arautzen ditu (martxoaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Dekretu hori aldatu egin zuen Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak (uztailaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, zeina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar baitute.

34/2007 Dekretuak arautu egiten ditu hegoaldeko pobretutako herrialdeen prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz pobrezia-aren aurkako borrokan laguntzen duten garapenerako lankidetza-proiektuentzako laguntzak. Horretarako, tokikoari lehentasuna eman nahi zaio estatukoari eta nazioartekoari loturik, garapenerako lankidetzako irabazi-asmorik gabeko erakundeek bitartez.

Aipatutako dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia atxikita dagoen saileko organo eskudunak xedatuta, laguntzen deialdia egingo da. Deialdi horretan, honako hauek adieraziko dira: deialdiaren xedea, diru-hornidura orokorra, hiru laguntza-modalitateetarako aurreikusitako diru-hornidura, erakunde bakoitzak gehienez eska dezakeen zenbatekoa, hautaketa-irizpideak, eskaerak aurkezteko tokia eta epea, eta eskaera-eredua. Kasu honetan, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia da eskumen hori duen agintaritzaren, honako bi dekretu hauek batera aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administraziooko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua.

Beste alde batetik, dekretuaren 22.4 artikulua hau ezartzen du: erakunde bakoitzak gehienez aurkez ditzakeen eskaeren kopurua eta/edo erakunde bakoitzak proiektu guztietarako gehienez eska dezakeen guztirako zenbatekoa zehaztuko da dagokion deialdia egiteko ebazpenean.

Halaber, 24. artikulua ezartzen du diru-laguntzaren ordainketa bakoitzaren ehunekoak deialdiaren ebazpenean ezarriko direla.

Ebazpen honek aldaketa bat dakar aurreko urteetako deialdiekin alderatuta. Izan ere, aurreko urteetan, II. kapituluaren aurkeztutako proiektuak (ekoizpen-garapenerako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak) I. kapituluaren baremazio-irizpideen arabera aztertzen ziren. Hala ere, II. kapitulu honetan aurkezten diren proiektu batzuk –bereziki ezagutza espezializatuak transmititzeari buruzkoak– ez dira nahitaez hegoaldeko herrialde pobretuetan egin behar, eta proiektu horien helburua hurbilago dago III. kapituluaren prestakuntza-proiektuen helburutik (garapenerako hezkuntza). Gaur egungo deialdiarekin, II. kapituluaren aurkeztzen diren eta nagusiki hegoaldeko herrialde batean garatzen diren proiektuak I. kapituluaren irizpideen arabera barema daitezke (garapenerako lankidetza), eta II. kapituluaren aurkeztzen diren baina nagusiki Euskadin gauzatuko diren proiektuak III. kapituluaren irizpideen arabera barematuko dira (garapenerako hezkuntza, zeinak prestakuntza-jarduera neurtzearekin lotutako dimentsioak eta zehar-lerroak baititu).

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak (5/2008 Legearen 11.2 artikulua, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena, eta 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua, martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duena).

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako artezkaritza-kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2015eko martxoaren 10ean egindako bilkuran.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Ebazpen honen xedea da, 2015eko ekitaldirako, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak araututako proiektuetarako laguntzen deialdia egitea. Dekretu hori uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen.

2. artikulua.— Diru-hornidura.

1.— Deialdi honetara bideratutako diru-horniduraren zenbatekoa, guztira, 20.000.000 eurokoa da. Laguntza-mota bakoitzerako honako diru-hornidura hau kalkulatu da:

- a) Garapenerako lankidetzaren proiektuentzako laguntzetara 16.400.000 euro bideratuko dira.
- b) Ekoizpen-garapenerako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuentzako laguntzetara 600.000 euro bideratuko dira.
- c) Garapenerako hezkuntzarako proiektuentzako laguntzetara 3.000.000 euro bideratuko dira.

3. artikulua.— Proiektu bakoitzeko eskatutako diru-laguntza.

Proiektu bakoitzeko ezin izango da 600.000 euro baino laguntza handiagoa eskatu.

4. artikulua.— Erakunde bakoitzeko eska daitekeen gehieneko zenbatekoa, guztira.

Banaka edo partzuergoan erakunde bakoitzak egin dezakeen gehieneko eskaera-kopurua ez da mugatu. Banaka edo partzuergoan erakunde bakoitzak eska dezakeen gehieneko zenbatekoa ere ez da mugatu (erakundeak eginiko diru-laguntza eskaera guztiak batera kontuan hartuta).

5. artikulua.— Diru-laguntzen ordainketa:

Emandako diru-laguntza honako epe hauetan ordainduko da:

- a) Emandako diru-laguntzaren % 20 (lehenengo ordainketa), laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren.
- b) Emandako diru-laguntzaren % 40 (bigarren ordainketa), ordaindutako diru-laguntzaren % 80 edo hortik gora egin dela justifikatu ondoren.
- c) Emandako diru-laguntzaren % 40 (hirugarren ordainketa), ordaindutako diru-laguntzaren % 80 edo hortik gora egin dela justifikatu ondoren.

6. artikulua.— Eskaerak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.— Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

2.— Eskaera paperean bete behar da, eskatuko den proiektu-mota kontuan hartuta, eskaera egiteko formularioaren bitartez. Formulario hori bide telematikotik eskura daiteke, herri-administrazioaren egoitza elektronikoan (euskadi net): https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2015/xxxxxxx/. Formulario hori ebazpen honen I. eranskinean dago jasota, eta hauek zehazten dira:

a) Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntza eskaera (I. kapitulua: Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak, eta II. kapitulua: Bereziki hegoaldeko herrialde pobretuetan produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak).

b) Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntza eskaera (III. kapitulua: garapenerako hezkuntza-proiektuak, eta II. kapitulua: Bereziki Euskadin produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuak).

3.— Eskabideak eskura aurkeztu behar dira Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzian bertan ((Nafarroa kalea, 2, 01007 Gasteiz) bai zuzenean, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak zehazten dituen erregistro-moduetatik edozeinen bidez. Eskatutako laguntzaren arabera zehaztu den epearen barruan aurkeztu beharko dira eskabideak. Horrez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen bulegoetan ere aurkez daiteke, bai eta herritarrei kasu egiteko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan ere: Bizkaian (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo), Gipuzkoan (Andia, 13,20003 Donostia) eta Araban (Ramiro de Maeztu, 10 behea, 01008 Gasteiz).

4.— Eskaera behar bezala beteta aurkezteaz gain, eskabidean dauden agiriekin batera, eskatutako laguntza-mota aintzat hartuta, proposamen teknikoari eta aurrekontuari buruzko agiriak ere aurkeztu beharko ditu. Badira horretarako agiri normalizatuak, eta ebazpen honen eranskinean datoz, I-A eta I-B agiriak dira. Hona hemen bakoitza zertarako den, banan-banan:

I. A eranskina:

a) Proiektuaren formulario teknikoa (I. kapitulua: Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak, eta II. kapitulua: Bereziki hegoaldeko herrialde pobretuetan produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak).

b) Proiektuaren formulario teknikoa (III. kapitulua: Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak, eta II. kapitulua: Bereziki Euskadin produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak).

I.B eranskina:

a) Proiektuaren aurrekontu orokorra, eurotan (I. kapitulua: Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak, eta II. kapitulua: Bereziki hegoaldeko herrialde pobretuetan produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak).

b) Proiektuaren aurrekontu orokorra eurotan (III. kapitulua: Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak, eta II. kapitulua: Bereziki Euskadin produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak).

7. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro honen kudeaketa-lanak egitea, eta Agentziaren Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak egingo ditu laguntza-eskabideen analisi teknikoa eta balorazioa; gero, horren berri emango dio Artezkaritza Kontseiluari, zeinak dagozkion laguntzak ematea proposatuko baitu.

8. artikulua.– Hautaketa-irizpideak.

Eskatutako betekizun guztiak biltzen dituzten eskaerak ebazpen honen II. eranskinean jasotako hautaketa-irizpideen arabera baloratuko dira.

9. artikulua.– Hitzarmena sinatzea.

Diru-laguntza onartu ondoren, onartutako diru-laguntzetarako hitzarmen bana sinatu beharko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak, deialdi honen III. eranskinean agertzen diren ereduaren arabera, finantzatuko den proiektu-mota kontuan hartuta.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko guztirako, arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuena, eta 34/2007 Dekretua, otsailaren 27koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtsetan kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen (dekretu hori uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen).

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAr argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAr argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

EHAAr argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 17a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Imprimir

I. ERANSKINA

GARAPENERAKO LAGUNTZAREN KARGURAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA ESKAERA (I. ETA II. KAPITULUAK)

ESKAERA KARATULA

Laguntza-eskaeraren jomugan dagoen diru-laguntza linea :

- ☐ I. kapitulua- Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak
- ☐ II. kapitulua- Bereziki hegoaldeko herrialde probretuetan produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak.

Proiektuaren izenburua (96 letra gehienez):

Proiektua herrialde honetan edo hauetan garatuko da:

Garapenerako Laguntza Batzordearen jardun-sektorea (CRS kodea):

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2014-2017 aldirako Plan Zuzendariaren sektore lehenetsia:

Euskal erakunde eskatzailea edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak iraunkorra identifikatzeko datuak

Izena (adierazi izen osoa, estatutuen arabera):

IFZ:

Helbidea:

P.K.:

Herria:

Probintzia:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-maila):

Webgunearen helbidea:

Oharra: Partzuergoen kasuetarako, aurreko atala partzuergoan bildutako erakunde bakoitzerako bete beharko da, partzuergoburu den erakundea lehen tokian jarrita.

+ Atal Berria Gehitu

Erreferentziako pertsonaren datuak, eskaerari buruzko elkarriketarako

Izen-abizenak:

Postua eta kargua:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-maila):

Tokiko erakundea identifikatzeko datuakIzena (*adierazi izen osoa, estatutuen arabera*):

Helbidea:

P.K.:

Herria:

Probintzia:

Herrialde:



Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-maila):

Webgunearen helbidea:

Oharra: Partzuergoen kasuetarako, aurreko atala partzuergoan bildutako erakunde bakoitzerako bete beharko da, partzuergoburu den erakundea lehen tokian jarrita.

[+ Atal Berria Gehitu](#)**Proiektuaren iraupena**Aurreikusitako hasiera-data:

 (*urtea/hilabetea/eguna*)Aurreikusitako amaiera-data:

 (*urtea/hilabetea/eguna*)Zenbat hilabetetan gauzatuko den:

 (*hilabeteak*)

Proiektuaren finantziazioa

Kostua guztira: _____ (euroak)

Eskatutako diru-laguntza: _____ (euroak)

Tokiko moneta eurotara bihurtzeko erabilitako kanbio mota:

- Bitarteko dibisa: _____ (KM / Moneta)

- 1 Toki-dibisa: _____ (KM / Moneta)

- 2 Toki-dibisa: _____ (KM / Moneta)

Helburu berarekin eman diren/eskuragarri dauden edo eskatu diren (zehaztu) bestelako ekarpenak:

	Emandakoa/Eskuragarria	Eskatutakoa
Euskal erakunde eskatzailea:		
Tokiko erakunde bazkidea:		
Xede-biztanleria:		
Beste ekarpen batzuk (lerro bat baterako finantziazioko iturri bakoitzeko):		

+ Lerro Berria Gehitu

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak proiektua abiarazteko baterako finantziazioaren gutxienez % 20 bermatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarenak ez diren baliabideengatik.

Proiektuaren baterako finantziazioa _____ da (euroak), eta hori guztizko aurrekontuaren % _____ da, eskaera honen I-B Eranskinean jaso denez.

Erakunde eskatzaileei dagozkien erantzukizunpeko aitortpenak

☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek, ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galaraziko liekeen administrazio- edo zigor-zehapenik jaso, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik zehapenak barne, eta horretarako ezgaituko lituzkeen lege-debekurik ere ez dute bete behar.

☐ Eskaera honetan bildutako datuak eta haiekin batera doazen dokumentu eta memoriak egiazkoak dira.

☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek, indarreko araudian laguntza horien onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzte, hori egiaztatzen duten agiriaren jabe dira eta diru-laguntza baliatzen duten bitartean betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak adierazten du EAEn _____ (kopurua) bazkide eta _____ (kopurua) boluntario dituela.

Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak adierazten du

☐ erakundeari atxikia dagoela (*adierazi koordinakundearen edo garapenerako lankidetzaren sarearen izen osoa, portaera-kode baten jabe izan behar duela eta jarraipen-batzordearen zehapenik jaso gabe egon behar duela kontuan hartuta*).

Tokiko erakundeei dagozkien erantzukizunpeko aitortpenak

☐ Tokiko erakundeak, eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek, ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galaraziko liekeen administrazio- edo zigor-zehapenik jaso, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik zehapenak barne, eta horretarako ezgaituko lituzkeen lege-debekurik ere ez dute bete behar.

☐ Tokiko erakundeak eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek, indarreko araudian laguntza horien onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzte, hori egiaztatzen duten agiriaren jabe dira eta diru-laguntza baliatzen duten bitartean betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

☐ Tokiko erakundea eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeak, egunean daude zerga-arloko eta gizarte-segurantzako betebeharrak betetzeari dagokionez.

Balidazio baimenduak

☐ Baimena ematen dut Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiazta dezan, behar bezainbat aldiz, euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, edota, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (x bat idatzi dagokion laukian)

(*) bat adierazi den kasuetarako, aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urteekiko aldaketarik badago aurkeztu beharko dira bakarrik. Gainerako dokumentuak behin bakarrik erantsiko dira, deialdira aurkeztutako proiektu kopurua edozein izanik ere. Kasu horretan, adierazi erantsitako dokumentuari dagokion espediente-zenbakia edo proiektuaren izena:

Eskuineko zutabeetan, erantsi beharreko dokumentu mota adierazi behar da, B (betekizuna) edo M (merezimendua) batekin bereizia.

I. ATALA. ESKAERA (dokumentu honen osagarria)**Digitala Papera Bet. / Mer.**

1.1.- I-A eranskina (proiektuaren inprimaki teknikoa) --ahal dela euskarri digitalean --, atal guztiak ongi betez eranskinean jasotako jarraibideei jarraiki.	☐	☐	B
1.2.- I-B eranskina (proiektuaren aurrekontua) --ahal dela euskarri digitalean --, atal guztiak ongi betez eranskinean jasotako jarraibideei jarraiki.	☐	☐	B
1.3.- Euskarri digitalak erantsiz gero, adierazi euskarri mota eta kopurua (esaterako CD 1, 2 USB eta abar)			

II. ATALA. EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAE-KO ORDEZKARITZA**Digitala Papera Bet. / Mer.**

2.1*.-EAEen erakunde eskatzailearen ordezkari den pertsonaren ahalordearen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.2*.- EAEen dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.3*.- Erakunde eskatzailearen estatutuen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.4*.- Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.5.- Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sektorean duen esperientziari buruzko dokumentuaren (laburpen-koadroa) kopia sinplea.	☐	☐	M
2.6.- Indarreko plan estrategikoaren kopia sinplea.	☐	☐	M
2.7.- Genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-planaren kopia sinplea.	☐	☐	M
2.8.- Partzuergoa osatuz gero, dagokion hitzarmenaren kopia sinplea, ezarritako ereduari jarraiki. Gainera, partzuergoan bildutako erakunde guztietatik 1etik 7era arteko puntuak aurkeztuko dira, aldez aurretik deskribatu ditugunak, betekizun- edo merezimendu-termino berberetan.	☐	☐	B
2.9.- Atzerriratutako langileen kasuan, azalpenezko memoria ezarritako ereduari jarraiki.	☐	☐	B
2.10.- Erakunde eskatzaileak EAEen duen ordezkari itza iraunkorraren kasuan, azalpenezko memoria ordezkari itzak proiektuaren garapenean duen zereginaren inguruan, ezarritako ereduari jarraiki.	☐	☐	B
2.11.Erakunde eskatzaileak lekuan bertan duen ordezkari itza iraunkorraren kasuan, azalpenezko memoria ordezkari itzak proiektuaren garapenean duen zereginaren inguruan, ezarritako ereduari jarraiki.	☐	☐	B

III. ATALA - TOKIKO BAZKIDEA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
3.1*.- Dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
3.2*.-Estatutuen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua		☐	B
3.3.- Tokiko erakundeak sektorean duen esperientziari buruzko dokumentuaren (laburpen-koadroa) kopia sinplea, ezarritako ereduari jarraiki.	☐	☐	M
3.4.- Indarreko plan estrategikoaren kopia sinplea.	☐	☐	M
3.5.- Genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-planaren kopia sinplea.	☐	☐	M
3.6.- Partzuergoa osatuz gero, dagokion hitzarmenaren kopia sinplea, ezarritako ereduari jarraiki. Gainera, partzuergoan bildutako erakunde guztietatik 1etik 5era arteko puntuak aurkeztuko dira, aldez aurretik deskribatu ditugunak, betekizun- edo merezimendu-termino berberetan.	☐	☐	B

IV. ATALA. KOKAPENA, AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
4.1.- Maparen kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, proiektuaren kokapena zehaztuta.	☐	☐	B
4.2.-Proiektuaren aurrekariari eta testuinguruari buruzko informazioaren kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, eta justifikazioa. Eskualdeari buruzko informazio sozio-ekonomikoa, antzeko beste proiektu batzuk, tokiko erakundeak eta instituzioak edo eskualdean dauden nazioarteko erakundeak, identifikazioa nola egin den, aldez aurreko azterlanak eta abar. Adierazi zein, aurkibide bat erabiliz:	☐	☐	M

V. ATALA. PLAGINTZAREN IDEIA NAGUSIA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
5.1.- Proiektuaren plangintzaren ideia nagusia buruzko dokumentuaren kopia sinplea, aurrekontu-deskribapena barne.	☐	☐	B

VI. ATALA. AURREKONTUA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
6.1.- Proforma-fakturen kopia sinplea, balorizazioak eta egiaztapenak.	☐	☐	B
6.2.- Bidezko bada, ordainagiriaren erabilerari buruzko memoriaren kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, ezarritako formatuaren arabera.	☐	☐	B
6.3.- Proiektua gauzatzeko den herrialdean edo eskualdean mota horretako kontratuek duten batez besteko soldataren egiaztagiraren kopia sinplea.	☐	☐	B

VII. ATALA. BIDERAGARRITASUNA ETA IRAUNKORTASUNA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
7.1.- Hala badagokio, ebaluazioaren erreferentziazko terminoen kopia sinplea.	☐	☐	B
7.2.-Hala badagokio, txandakako funtsa azaltzeko memoriaren kopia sinplea, ezarritako formatuaren arabera.	☐	☐	B
7.3.-Kasu bakoitzean bideragarritasun tekniko, materiala eta instituzionala eta iraunkortasuna justifikatu eta egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuen kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean. Adierazi zein, aurkibide bat erabiliz:	☐	☐	M

EHAAn deialdia argitaratzen denez geroztik, www.elankidetza.euskadi.eus webgunean honako dokumentu hauek egongo dira eskuragarri, eskaerak aurkezteko erabiliko direnak:

- Eskaera-inprimakiak
- Sektoreko erakunde eskatzailearen esperientziari buruzko laburpen-koadroaren eredua.
- Sektoreko toki-erakundearen esperientziari buruzko laburpen-koadroaren eredua.
- Erakunde eskatzaileen partzuergo-hitzarmenaren eredua
- Tokiko erakunde bazkideen partzuergo-hitzarmenaren eredua
- Ordainagiriaren erabilera azaltzeko memoria
- Atzerriratutako langileei buruzko azalpenezko memoria
- Txandakako funtsa azaltzeko memoria
- EAEko erakunde eskatzailearen ordezkartza iraunkorra azaltzeko memoria
- Lekuan bertan erakunde eskatzaileak duen ordezkartza azaltzeko memoria

* (Eredu hauek orientagarriak dira)

_____, 20 ____ (e)ko _____ aren _____ a, _

(Erakundea legez ordezkatzeko duen eskatzailearen izena)

(Erakundea legez ordezkatzeko duen eskatzailearen sinadura)



Imprimir

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

I. ERANSKINA

GARAPENERAKO LAGUNTZAREN KARGURAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA ESKAERA (II. ETA III. KAPITULUAK)

ESKAERA KARATULA

Laguntza-eskaeraren jomugan dagoen diru-laguntza linea:

- ☐ II. kapitulua- Bereziki Euskadin produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuetarako laguntzak.
- ☐ III. kapitulua.- Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak.

Proiektuaren izenburua: (96 letra gehienez):

Garapenerako Laguntza Batzordearen jardun-sektorea (CRS kodea):

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2014-2017 aldirako Plan Zuzendariaren sektore lehenetsia:

Jardunaren prozedura:

Euskal erakunde eskatzailea edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak iraunkorra identifikatzeko datuak

Izena (adierazi izen osoa, estatutuen arabera):

IFZ:

Helbidea:

P.K.:

Herria:

Probintzia:

Telefona:

Helbide elektronikoa (e-maila):

Webgunearen helbidea:

Oharra: Partzuergoen kasuetarako, aurreko atala partzuergoan bildutako erakunde bakoitzerako bete beharko da, partzuergoburu den erakundea lehen tokian jarrita.

+ Atal Berria Gehitu

Proiektuan parte-hartze esanguratsua duten erakundeei buruzko datuak

1. erakundea/kolektiboa: _____
2. erakundea/kolektiboa: _____
3. erakundea/kolektiboa: _____

** Proiektuan parte-hartze aktiboa duten erakunde edo kolektiboek (ikastetxeak, elkarteak eta abar) ziurtagiria aurkeztu beharko dute proiektuan parte-hartzea badutela bermatzeko. (Xehetasun gehiagotarako ikusi dokumentuen zerrenda, zehazki 2.10 atala)*

Erreferentziazko pertsonaren datuak eskaerari buruzko elkarrizketetarako

Izen-abizenak: _____

Postua eta kargua: _____

Telefona: _____

Helbide elektronikoa (e-maila): _____

Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data: _____ (urtea/hilabetea/eguna)

Aurreikusitako amaiera-data: _____ (urtea/hilabetea/eguna)

Zenbat hilabetetan gauzatuko den: _____ (hilabeteak)

Proiektuaren finantziazioa

Kostua guztira: _____ (euroak)

Eskatutako diru-laguntza: _____ (euroak)

Helburu berarekin eman diren/eskuragarri dauden edo eskatu diren (zehaztu) bestelako ekarpenak:

	Emandakoa/Eskuragarria	Eskatutakoa
Euskal erakunde eskatzailea:		
Beste ekarpen batzuk (linea bat baterako finantziazioko iturri bakoitzeko):		

+ Lerro Berria Gehitu

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak proiektua abiarazteko baterako finantziazioaren gutxienez % 20 bermatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarenak ez diren baliabideengatik.

Proiektuaren baterako finantziazioa _____ da (euroak), eta hori guztizko aurrekontuaren % _____ da, eskaera honen I-B Eranskinean jasota dagoenez.

Erakunde eskatzaileei dagozkien erantzukizunpeko aitortpenak

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, eta, hala badagokio, partzergoan bildutako erakundeek, ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galaraziko liekeen administrazio- edo zigor-zehapenik jaso, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik zehapenak barne, eta horretarako ezgaituko lituzkeen lege-debekurik ere ez dute bete behar.

- ☐ Eskaera honetan bildutako datuak eta haiekin batera doazen dokumentu eta memoriak egiazkoak dira.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak eta, hala badagokio, partzergoan bildutako erakundeek, indarreko araudian laguntza horien onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzte, hori egiaztatzen duten agirien jabe dira eta diru-laguntza baliatzen duten bitartean betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak bere gain hartzen du hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea proiektuan sortutako dokumentazioan edota egin beharreko memoria edo txostenetan.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak adierazten du EAEn _____ (kopurua) bazkide eta _____ (kopurua) boluntario dituela.

Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak adierazten du

- ☐ _____ erakundeari atxikia dagoela (adierazi koordinakundearen edo garapenerako lankidetzaren sarearen izen osoa, portaera-kode baten jabe izan behar duela eta jarraipen-batzordearen zehapenik jaso gabe egon behar duela kontuan hartuta).

Balidazio baimenduak

- ☐ Baimena ematen dut Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiazta dezan, behar bezainbat aldiz, euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, edota, hala badagokio, partzergoan bildutako erakundeek, zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (x bat idatzi dagokion laukian)

(*) bat adierazi den kasuetarako, aurkezten den lehen aldía bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago aurkeztu beharko dira bakarrik. Gainerako dokumentuak behin bakarrik erantsiko dira, deialdira aurkeztutako proiektu kopurua edozein izanik ere. Kasu horretan, adierazi erantsitako dokumentuari dagokion espediente-zenbakia edo proiektuaren izena:

Eskuineko zutabearen erantsi beharreko dokumentu mota adierazi behar da, B (betekizuna) edo M (Merezimendua) batekin bereizita.

I. ATALA. ESKAERA (dokumentu honen osagarria)**Digitala Papera Bet. / Mer.**

I-A eranskina (proiektuaren inprimaki tekniko) --ahal dela euskarri digitalean --, alderdi guztiak ongi betez eranskinean jasotako jarraibideei jarraiki.	☐	☐	B
I-B eranskina (proiektuaren aurrekontua) --ahal dela euskarri digitalean --, atal guztiak ongi betez eranskinean jasotako jarraibideei jarraiki.	☐	☐	B
1.3.- Euskarri digitalak erantsiz gero, adierazi euskarri mota eta kopurua (esaterako CD 1, 2 USB eta abar): 			

II. ATALA. EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAEko ORDEZKARITZA**Digitala Papera Bet./ Mer.**

2.1*.- EAEn erakunde eskatzailearen ordezkari den pertsonaren ahalordearen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.2*.-EAEn dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.3*.-Erakunde eskatzailearen estatutuen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.4*.-Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.		☐	B
2.5.-Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sektorean duen esperientziari buruzko dokumentuaren (laburpen-koadroa) kopia sinplea.	☐	☐	M
2.6.-Indarreko plan estrategikoaren kopia sinplea.	☐	☐	M
2.7.-Garapenerako eta politikan eragiteko hezkuntzako indarreko estrategiaren kopia sinplea.	☐	☐	M
2.8.-Genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-planaren kopia sinplea.	☐	☐	M
2.9.-Partzuergoa osatuz gero, dagokion hitzarmenaren kopia sinplea, ezarritako ereduari jarraiki. Gainera, partzuergoan bildutako erakunde guztietatik 1etik 9ra arteko puntuak aurkeztuko dira, aldez aurretik deskribatu ditugunak, betekizun- edo merezimendu-termino berberetan.	☐	☐	B
2.10.-Parte-hartze esanguratsua duten beste erakunde edo kolektibo batzuek parte hartzen badute, bakoitzak proiektuan duen konpromisoaren ziurtagiriaren kopia.	☐	☐	B
2.11.-Erakunde eskatzaileak EAEn duen ordezkartza iraunkorraren kasuan, azalpenezko memoria ordezkartzak proiektuaren garapenean duen zereginaren inguruan, ezarritako ereduari jarraiki.	☐	☐	B

III. ATALA - PROIEKTUA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
3.1.- Proiektuaren plangintzaren ideia nagusiari buruzko dokumentuaren kopia sinplea, aurrekontu-deskribapena barne.	☐	☐	B
3.2.Proiektuaren justifikazio- eta aurrekari-atalean aldez aurretik aipatutako diagnostiko, oinarrizko ildo, azterlan edo ikerketen kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean. Adierazi zein, aurkibide bat erabiliz: 	☐	☐	M
3.3.- Proforma-fakturen kopia sinplea, balorizazioak eta egiaztapenak.	☐	☐	B
3.4.-Bidezko bada, ordainagirien erabilerari buruzko memoriaren kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, ezarritako formatuaren arabera.	☐	☐	B
3.5.- Hala badagokio, ebaluazioaren erreferentziazko terminoen kopia sinplea.	☐	☐	B
3.6.- Proiektuaren kargurako kontratatu beharreko langileen egokitasuna azaltzeko memorien kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, ezarritako formatuaren arabera.	☐	☐	B
3.7.-Boluntarioek proiektuan duten parte-hartzea azaltzeko memorien kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean, ezarritako formatuaren arabera.	☐	☐	B

3.8.Kasu bakoitzean bideragarritasun teknikoa, materiala eta instituzionala eta iraunkortasuna justifikatu eta egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuen kopia sinplea, ahal dela euskarri digitalean. Adierazi zein, aurkibide bat erabiliz:	☐	☐	M
---	--------------------------	--------------------------	----------

EHAAn deialdia argitaratzen denez geroztik, www.elankidetza.euskadi.eus webgunean honako dokumentu hauek egongo dira eskuragarri, eskaerak aurkezteko erabiliko direnak:

- Eskaera-inprimakiak
- Sektoreko erakunde eskatzailearen esperientziari buruzko laburpen-koadroaren eredua.
- Erakunde eskatzaileen partzuergo-hitzaurrearen eredua
- Ordainagirien erabilera azaltzeko memoria
- Kontratutako langileen egokitasuna azaltzeko memoria
- Boluntarioen parte-hartzea azaltzeko memoria
- EAEko erakunde eskatzailearen ordezkartza iraunkorra azaltzeko memoria

** (Eredu hauek orientagarriak dira)*

_____, ____ 20 ____ (e)ko _____ aren _____ a, _

(Erakundea legez ordezkatzeko duen eskatzailearen izena)

(Erakundea legez ordezkatzeko duen eskatzailearen sinadura)



I. A ERANSKINA

PROIEKTUAREN INPRIMAKI TEKNIKOA (I. ETA II. KAPITULUAK)*

* Garapenerako lankidetzaren proiektuak (I. kapitulua) eta Produkzioa, prestakuntza eta laguntza teknologikoa garatzeko egiten diren proiektuak (II. Kapitulua)- bereziki hegoaldeko herrialde pobretuetan gauzatzen direnak.

1.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (deskribatu, gehienez ere 5-10 lerrotan, proiektuaren edukia, daturik garrantzitsuenak adierazita).

2.– KOKAPEN ZEHATZA (deskribatu proiektuaren kokapen zehatza. Erantsi eranskinetako IV. atalean proiektuaren kokapena zehazten du(t)en mapa(k)).

3.– TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA.

3.1.– Testuingurua (esparru geografikoa, ezaugarri sozioekonomikoak, biztanleria, genero-harremanen diagnostikoa, tokiko gaitasunak, parte-hartzea, antolaketa, eskubideen ikuspegia eta iraunkortasun ekologikoa, proiektuaren esparrua zehatzago dokumentatzeko, batez ere proiektuaren xedearekin, lurraldearekin eta sektorearekin zerikusia duten alderdiei dagokienez. Informazioa zabaltzeko, erabili eranskinetako IV. atala).

3.2.– Aurrekariak (ekimenaren jatorria; diagnostikoa eta aurretiazko azterlanak; identifikazio-prozesua; tokiko erakundeari buruzko informazioa; partzergo bat eratzearen egokitasuna; euskal erakunde eskatzaileak edo EAEn duen ordezkartza iraunkorrek tokiko erakundearekin eta tokiko eta nazioarteko erakundeekin eta abarrekin duen harremana; erakunde eskatzailea eta tokiko erakundea plan estrategikoetan txertatzea; eremu horretan egindako antzeko beste ekimen edo proiektu batzuk, eta halakorik balego horiek betearazteko aurreikusitako koordinazioa, eta abar. Informazio osagarria eranskinetako IV. atalean erantsi behar da).

3.3.– Justifikazioa (proiektua proposatzera bultzatu duten arrazoiak, proiektua xede-biztanleriarentzat eta pobreziaren aurka borrokatzeko estrategiarentzat egokia ote den, jarraituko den estrategia eta zeharkako ildo bakoitzarekin duen lotura. Informazio osagarria eranskinetako IV. atalean erantsi behar da).

4.– XEDE BIZTANLERIA.

4.1.– Xede-biztanleria identifikatzea eta bereiztea (gizarte-taldea, etnia, adin bereko taldea, eta abar).

4.2.– Xede-biztanleriaren kuantifikazioa (osatu ondorengo taula, proiektuaren ezaugarriak kontuan izanik).

Kokapena	Biztanleria-taldeak	Emakume kopurua	Gizon kopurua	Pertsonak guztira



4.3.– Xede-biztanleria aukeratzeko irizpideak.

4.4.– Xede-biztanleriak proiektuaren zer fasetan eta nola parte hartzen duen. Arreta berezia eskainiko zaio emakumeek proiektuan duten parte-hartzeari eta askotariko eta ezkutuko bihurtutako kolektiboek haien parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak deskribatu.

5.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA.

Eranskinetako V. atalean Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia –PPIN– erantsiko da.

5.1.– Helburu orokorra (deskribatu proiektuak lortu nahi duen helburu zabalena).

5.2- Proiektuaren helburu espezifikoa.

5.2.1.– Helburu espezifikoa (deskribatu giza garapen iraunkorrari dagokionez lortu nahi den eragina).

5.2.2.– Helburu espezifikoaren lortze-mailaren adierazleak (deskribatu adierazle zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak, prozesu-adierazleak eta eragin-adierazleak, kantitateari edo nolakotasunari, denborari eta xede-biztanleriari dagozkien datuekin, helburu espezifikoa lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko).

5.2.3.– Adierazleak egiaztatzeko iturriak (adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer iturri baliatzen diren zehaztuko da: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

A. Eragin politikoko proiektuak. Herritarren mobilizazioko, salaketako, partaidetzako eta zabalkundeko kanpainak lehenetsitako gaiei dagokienez. 3 puntu gehienez, baldin eta:

- eragin politikoko estrategia bat badu, inplikaturako eragileak zehaztuko dituen (eskubideen titularrak eta erantzukizunen edukizailak, baita hirugarren aktoreak ere).
- bakoitzarentzat ekintza estrategikoak planifikatzen badira bereizitako inpakturekin.
- ekintzaren denborazkotasun bat zehazten bada.
- sareak edo aliantzak ezartzea planteatzen bada.

B. Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak Garapenerako Hezkuntzan. 3 puntu gehienez, baldin eta:

- Argitalpeneko/Banaketako-Hedapeneko/Komunikazioko estrategia bat badu.
- hizkuntzaren eta kontzeptuen erabilera egoki bat egitea planteatzen badu (bereziki genero-ikuspegiarekin lotutakoak, giza eskubideen arau multzoa eta Garapenerako Hezkuntzarako funtsekoak).
- berrikuntza planteatzen badu hurbilketa metodologikoan.
- kasuan kasu, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera gaineratzen badu edo planteatzen badu.
- irratia edo telebista-programen kasuan, komunikazio-estrategia bat badu eta profesionalen aholkularitza badu irratia edo telebista-alorrean.

C. Ikerketa-proiektuak. 3 puntu gehienez, baldin eta:

- ikerketa-estrategia bat badu bere elementu guztiekin (ikerketa-gai edo -arazoaren justifikazioa, aurrekariak, artearen egoera, esparru teorikoa, metodologia, ondorioak, gomendioak).
- ikerlari talde gaitu bat badu (egokitasun-memoriaren edo Erreferentziazko Terminoen bidez egiaztatutakoa).
- erakundeak alde aurreko esperientzia ikertzailea badu ikerketaren gain.
- ikerketa lagungarria bada pobrezia estrukturalaren eta munduko desparekotasunen arrazoiak ulertzeko.
- jakintza sozializatzeko estrategia bat planteatzen bada.
- emaitzen aplikazio praktikoa bat planteatzen bada garapenerako lankidetzaren/hezkuntzaren esparruan.

D. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-proiektuak.

- Unibertsitatez kanpoko prestakuntzarako. 3 puntu gehienez, baldin eta:
 - berriaz hautatutako publiko bat aurkezten badu.
 - helburu-publikoaren premietara egokituta badago.
 - prestakuntza-plan xehatua aurkezten badu.
 - pertsonen eta kolektiboen gaitasunak indartu nahi baditu.
 - Plan Zuzendariarekin koherenteak diren edukiak garatzen baditu.
 - aliantzak eta koordinazioa garatzen baditu unibertsitateekin/ikastetxeekin (formala eta ez formala).
 - Hegoko agenteen edota Iparrean baztertutako pertsonen partaidetza bultzatzen badu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-baldintzetan.
- Unibertsitateko prestakuntzarako. Gehienez 3 puntu, aurretik planteatutakoaz gain, kontuan hartzen badu unibertsitatearen abalekin eta izaera akademikoko erakunde-egitura baten laguntzarekin.



E. Artikulazio- eta truke-proiektuak: Gehienez 3 puntu baldin eta:

- artikulazioaren eta trukearen justifikazioa badu.
- bereizitako parte-hartzea zehazten badu eragile eta kolektiboentzat.
- komunikazio-estrategia bat garatzen badu komunikazio-ekintzetarako. (hitzaldiak, jardunaldiak, biltzarrak, eta abar) eta komunikazioko edo sareen/aliantzen ezarpeneko ekintzen esperotako inpaktuak planteatzen badira.

5.– Xede-biztanleak bat badatoz deialdian lehentasunezko zatitzat identifikatutakoekin, 4 puntu gehienez.

- 5.1.– Proiektuaren xede-biztanle gehienak lehentasunezko kolektiboetako pertsonak badira: 2 puntu.
- 5.2.– Proposamenetan xede-biztanle **gehienak** EAEko hiriburuak ez diren udalerritan bizi diren pertsonak eta kolektiboak badira: puntu gehigarri 1.
- 5.3.– Euskal gizartean **baztertuta dauden kolektiboak** subjektu gisa barne hartzen baditu: bestelako gaitasun-mailak dituzten pertsonak, espetxeratutakoak, adingabe arau-hausleak, gutxiengo etnikoak, eta abar: puntu gehigarri 1.

6.– Proiektuan lehentasuna ematen zaien gaiak koherenteak dira deialdian lehentasunezko zatitzat identifikatutakoekin: 4 puntu gehienez.

- 6.1.– Dekretu arautzaileak bere 17.1.f) artikuluan lehenetsitako gaietako bat bada: 2 puntu.
- 6.2.– Horrez gain, proposamenaren esparruan genero-ekitatearekin erlazionatutako gaiak berariaz sartzen badira: 2 puntu gehigarri.

7.– Proiektua erakunde eskatzailearen Garapenerako Hezkuntza Plan Estrategikoaren edo Eraginaren barnean hartuta dago: 2 puntu.

8.– Irabazi asmorik gabeko erakundearen eta lehentasunezko kolektiboaren erakundearen arteko partzuergoa da: 2 puntu.

II.– PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNAREN ARABERA (15 PUNTU)

1.– Erakunde eskatzaileak aldeaz aurreko esperientzia du garapenerako hezkuntza eta aztertutako gaian: 2 puntu gehienez.

- 1.1.– Puntu bat legalki duela bost urte edo hortik gora eratu bazen eskaerak aurkezteko epearen amaiera-egunetik zenbatuta. puntu 1.
- 1.2.– Proiektua txertatuta dagoen sektorean lan-esperientzia jarraitua egiaztatzen bada deialdiaren aldeaz aurreko hiru urte naturaletan gutxienez (2012-2014).

2.– Gaitasuna eta kaudimena: 2 puntu gehienez.

- 2.1.– 2 puntu erakundeak azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzaren edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lankidetzat-laguntzaren bat kudeatu badu, behar bezala justifikatuta, eskatutako diru-kopuruaren parekoa edo hortik gorakoa, eskaerak aurkezteko epearen amaiera-egunean. 2 puntu.
- 2.2.– Erakundeak azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzaren edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lankidetzat-laguntzaren bat kudeatu badu, behar bezala justifikatuta, eskatutako diru-kopuruaren parekoa edo haren % 75etik gorakoa, eskaerak aurkezteko epearen amaiera-egunean. puntu 1.



3.– Proiektua egikaritzen duten pertsonen prestakuntza egokia: 2 puntu gehienez.

- 3.1.– Proiektua diseinatzen eta bideratzen duten pertsonen egokitasun-memorian aurkeztutako prestakuntza akademiko egokia bada: puntu 1.
- 3.2.– Esparru horretan esperientzia profesionala bada eta azalpen-memoria gaineratzen bada: puntu 1.

4.– Testuinguruaren eta xede-biztanleriaren diagnostiko bat egin da proiektua baino lehen: 2 puntu gehienez.

5.– Landutako gaiari buruzko aldez aurreko ikerketa egin da: 2 puntu.

6.– Jarraipeneko eta ebaluazioko adierazleen sistema. 5 puntu gehienez.

- 6.1.– Helburu-adierazleak oinarri espezifiko ildo batetik abiatuz eraikitzen badira: 2 puntu.
- 6.2.– Helburu espezifikoaren eta espero den emaitza bakoitzaren inguruan adierazle zehatzak, neurtzeko modukoak eta egiaztatzeko modukoak, kuantitatiboak, kualitatiboak eta prozesukoak ezartzen badira: 2 puntu.
- 6.3.– Ebaluazio-adierazleak proiektuaren genero-inpaktua identifikatzeko moduan eraikita badaude: puntu gehigarri 1.

III.– DIMENTSIO POLITIKOAREN ARABERA (13 PUNTU)

1.– Diagnostikoa: 2 puntu gehienez

- 1.1.– Proiektuaren xede-biztanleriaren edota haren erakundeen partaidetza-gaitasunei buruzko diagnostiko bat badago: puntu 1
- 1.2.– Egoeraren/gaiaren diagnostiko bat egiten bada hura sortzen duten arrazoiak gaineratuz: puntu 1

2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia eta aurrekontua: 2 puntu gehienez

- 2.1.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia ekonomian sozial eta solidarioko baliabideak indartzen edo baliatzen dituzten jarduerak badaude: puntu 1
- 2.2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia errealitatearen ulerkuntza kritikoan aurrerapausoak neurtzen dituzten adierazleak badaude: puntu 1

3.– Estrategia: 5 puntu gehienez

- 3.1.– Partaidetza-estrategia baten barruan txertatzen bada: 2 puntu gehienez
 - Esku-hartzea xede-biztanleriaren partaidetza aktibo eta erreflexibo batean txertatzen bada: puntu 1
 - Esku-hartzea erakundearen boluntarioen parte-hartze aktiboko estrategian txertatzen bada proiektuaren diseinuan, egikaritzapenean eta ebaluazioan: puntu 1
- 3.2.– Esku-hartzea tokikoa dena eta globala dena lotzeko estrategia batean txertatzen bada: puntu 1



- 3.3.– Esku-hartzeak tokiko garapen-estrategia publikoa, edo erakunde eta sareena edo gizarte-mugimenduetan indartzen badu: puntu 1
- 3.4.– Esku-hartzea kanpaina edo sare tematiko espezifiko batean txertatzen bada: puntu 1

4.– Metodologia: 4 puntu gehienez

- 4.1.– Xede-biztanleriak egikaritzapenean parte hartzea errazten eta sustatzen duten metodologiak erabiltzen badira eta deskribatuta badaude: puntu 1
- 4.2.– Arrazoen eta alternatiba posibleen azterketa kritiko bat errazten duten metodologiak erabiltzen badira: puntu 1
- 4.3.– Landutako gaien inguruko salaketa eta eragina indartzen duten metodologiak erabiltzen badira: puntu 1
- 4.4.– Material guztiak eta proiektuak sortutako beste proiektu batzuk nazioartean interesa duen edozein pertsonarentzako eskuragarri badaude, webgunearen edo beste edozein plataformaren bidez dohainik: puntu 1

IV.– KULTURA ARTEKO DIMENTSIOAREN ARABERA (9 PUNTU).

1.– Diagnostikoa: 2 puntu gehienez

- 1.1.– Kultura arteko bizikidetza sustatzeko xede-biztanleriaren muga eta potentzialtasunei buruzko diagnostiko bat aurkezten badu: puntu 1
- 1.2.– Dibertsitatearen kudeaketarekin lotutako EAE dauden politikei/planei/estrategiei buruzko diagnostiko bat aurkezten bada (aldeko testuingurua edo ez): puntu 1

2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia eta aurrekontua: 3 puntu gehienez

- 2.1.– Kultura arteko bizikidetza bultzatzeko xede-biztanleriaren gaitasunak indartzea helburu duten jarduerak zehatzak eta ondo definitutako jarduerak badaude: puntu 1
- 2.2.– Kultura-dibertsitateari dagokionez jarreraren eta diskurtsoaren aldaketan aurrerapausoak neurtzen dituzten adierazleak badituzte: puntu 1
- 2.3.–Kultura-dibertsitatearen sustapena bultzatzen duten material eta baliabide didaktikoak lantzeko jarduerak badaude: puntu 1

3.– Estrategia: 3 puntu gehienez

- 3.1.– EAEko eta Hegoko erakunde edota kolektiboen arteko artikulazioa edo elkarraldiak planteatzen badira haien gaitasun eta harremanak indartzeko: puntu 1
- 3.2.– EAEko bi hizkuntza ofizialen erabileraren erabateko egokitzapena kontuan hartzen bada: 2 puntu gehienez
 - Sentsibilizazio-jardueretan, jardunaldietan, biltzarretan eta abar aldibereko itzulpen elebiduna barne hartzen bada: puntu 1
 - Proiektuaren baitan landutako komunikazio-material eta -euskari guztien (ikus-entzunezkoak, irudiak eta abar barne) produkzio elebiduna bermatzen bada: puntu 1



4.– Metodologia: puntu 1 gehienez.

- Ekintzak helburu dituen kolektiboen kultura-dibertsitateari egokitutako metodologia bat planteatzen bada: puntu 1

V.– DIMENTSIO PEDAGOGIKOAREN ARABERA (15 PUNTU).

1.– Diagnostikoa: 2 puntu gehienez

- 1.1.– Xede-biztanleriaren ikaskuntzako edo desikaskuntzako gaitasun eta mugei buruzko diagnostiko bat badago: puntu 1
- 1.2.– Prestakuntza-esparruari buruz ingurunean dauden politika eta dokumentuei buruzko diagnostiko bat badago, baita, kasuan kasu, zalantzan jartzeak eta alternatiba posibleak ere: puntu 1

2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia eta aurrekontua: 3 puntu gehienez

- 2.1.– Marko Logikoaren Ideia Nagusian xede-biztanleriaren prestakuntza-gaitasunak indartzea helburu duten jarduerak badaude: puntu 1
- 2.2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusian material eta baliabide didaktiko eta prestakuntzazkoak lantzeko jarduerak badaude: puntu 1
- 2.3.– Marko Logikoaren Ideia Nagusian xede-biztanleriaren komunikazio- eta motibazio-abilezien garapenean aurrerapausoak neurtzea ahalbidetzen duten adierazleak badaude: puntu 1

3.– Estrategia: 5 puntu gehienez

- 3.1.– Gatazken kudeaketa eta konponketaren ikaskuntzaren aldeko apustua egiten duen ikuspegi pedagogikoa proposatzen bada: puntu 1
- 3.2.– Eskubideen ikuspegi bat planteatzen bada: puntu 1
- 3.3.– Egungo produkzio eta kontsumoko ereduakiko ikuspegi kritikoa proposatzen bada, beste garapen-eredu alternatibo batzuk berreskuratzeko eta indartzeko: puntu 1
- 3.4.– Modu komunean eta berdintasunean hezteko aukera ematen duen hezkidetz-ikuspegi bat proposatzen bada, biztanle onuradunen maskulinoari eta femeninoari lotutako estereotipoak detektatuz eta gaindituz: puntu 1
- 3.5.– Hainbat esparrutako hezkuntza-agenteen artikulazio-estrategia bat planteatzen bada: puntu 1

4.– Metodologia: 5 puntu gehienez

- 4.1.– Metodologia pedagogikoak gizarte-ekintzako printzipio bat barnean hartzen badu, eta horrek prestakuntza eta gizarte-ekintza lotzen dituzten estrategien bilaketa kooperatiboa, trukea eta ahaldunderako estrategiak bultzatzeko apustua egiten badu: 2 puntu gehienez
 - Estrategien trukea eta bilakaera kooperatiboa sustatzen bada: puntu 1
 - Prestakuntza eta gizarte-ekintza lotzen baditu: puntu 1



- 4.2.– Proiektua burutzen den udalerriko xede-biztanleetara, baldintzetara eta testuingurura, eta parte-hartzaileen interesetara egokitutako metodoa eta hedapen-sistema erabiltzen bada (espezifiko bada eta ez generalista): puntu 1
- 4.3.– Proiektuak metodologia berritzaileak erabiltzen baditu edo berrikuntza-esperientziak sustatzen badituzte garapenerako hezkuntzan.
- 4.4.– Proiektuaren helburua lortzeko parte-hartze metodologiak eta/edo ikerketa eta ekintzako tresnak gaineratzen badira.

VI.– GENERO IKUSPEGIAREN ZEHARKAKOTASUNAREN ARABERA (11 PUNTU)

1.– Diagnostikoa: 2 puntu gehienez

- 1.1.– Emakumeek eta gizonen proiektuaren eremuan duten izaera eta posizio desberdinari buruzko azterketa on bat aurkezten baditu, konpondu nahi dituen genero-desberdintasunak identifikatzen baditu, sexuaren arabera banandutako informazioa barnean hartzen badu, baita proiektua landuko den eremuaren barruan baliabideen sarbide eta kontrol diferentziala ere; eta gizonen eta emakumeen premiak eta interesak identifikatzen baditu: puntu 1
- 1.2.– Jardun-sektorean dauden genero-politikei/berdintasun-planei buruzko diagnostiko bat badago (aldeko testuingurua edo ez): puntu 1

2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia eta aurrekontua: 3 puntu gehienez

- 2.1.– Ekitatearen sustapenean xede-biztanleriaren gaitasunak hobetzeko jardun zehatzak eta ondo definitutakoak badaude: puntu 1
- 2.2.– Berdintasunaren sustapenean aurrerapausoak neurtzen dituen genero-inpaktuko adierazleak baditu (rolen aldaketa, aurrerapausoak ahalduztzean, erabakia hartzea...): puntu 1
- 2.3.– Gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak gainditzeko aurrerapausoetarako giza baliabide, eta baliabide tekniko eta material espezifikoek zehazten badira: puntu 1

3.– Estrategia: 5 puntu gehienez

- 3.1.– Emakumeak eta haien erakundeak ageriko egiteko estrategia bat planteatzen bada garapenaren subjektu protagonista gisa: puntu 1
- 3.2.– Emakumeen eta haien erakundearen parte-hartzearen sustapena planteatzen bada: 2 puntu gehienez
 - Mekanismo zehatzak ezartzen badira (kuotak, ekintza positiboak, besteak beste) proiektuaren jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko eta ezarritako estrategia deskribatzen bada: puntu 1
 - Proiektuaren jardueretan emakumeen erakundeek eta erakunde feministek nabarmenki parte hartzen badute: puntu 1
- 3.3.– Komunikazio-estrategia bat planteatzen bada hizkuntza barne-hartzailearen erabilera bermatzeko landutako materialetako mezu eta irudietan: puntu 1
- 3.4.– Erakundeak genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-plan estrategikoa badu: puntu 1



4.– Metodologia: puntu 1 gehienez.

- Proiektuaren ekintzetan gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua ahalbidetzen duen metodologia bat planteatzen bada: puntu 1

VII.– HEGOKO IKUSPEGIAREN BIRBALORIZAZIOAREN ARABERA (11 PUNTU)

1.– Diagnostikoa: puntu 1 gehienez.

- Xede-biztanleriaren Hego globalari buruzko imajinario kolektiboaren diagnostiko bat aurkezten bada: puntu 1

2.– Marko Logikoaren Ideia Nagusia eta aurrekontua: 3 puntu gehienez

- 2.1.– EAEn Hegoko erakundeek zabal ditzaten material eta baliabide didaktikoak egiteko jarduerak badaude: puntu 1
- 2.2.– Esperientziak, sistematizazioak edo Hegoko erakunde, kolektibo edo pertsonen egindako ikerketak –Iparrean zein Hegoan kokatuak– badaude EAEn lehenetsitako gaiei buruz: puntu 1
- 2.3.– Honako hauek neurtzea ahalbidetzen duten emaitza eta adierazleak diseinatzen badira: jarrera-alaketak, partaidetza- edo ordezkaritza-kuoten banaketa, kolektibo/biztanleria parte-hartzailearen diskurtso- edo jarduera-alaketak Hegoko kolektibo/pertsonei dagokienez: puntu 1

3.– Estrategia: 7 puntu gehienez

- 3.1.– Hegoko erakunde, kolektibo eta pertsonen protagonismoa (Iparrean zein Hegoan kokatuak) sustatzen bada jardueretan: puntu 1
- 3.2.– Pobretutako herri eta herrialdeen imajinario kolektiboa eta haiei buruzko estereotipo negatiboak eraldatzearen aldeko apustua egiten bada: 2 puntu gehienez
 - Hegoari buruzko imajinario kolektiboa eratzeko moduari buruzko azterketa-jarduerak txertatzen badira eta sistema baztertzailaren mantentzean betetzen duten paperari buruzko hausnarketa egiten bada: puntu 1
 - Hegoari buruzko imajinario kolektiboa eraldatzeko eta hobetzeko salaketa- eta eragin-jarduerak egiten badira: puntu 1
- 3.3.– Hegoari buruzko esperientzia eta jakintzetatik abiatuta ikaskuntzak ateratzeko estrategia bat planteatzen bada: puntu 1
- 3.4.– Hegoari buruzko esperientzia eta jakintzetatik ateratako ikaskuntzak EAEko hezkuntza-gogoeta eta -praktiketan txertatzeko estrategia bat planteatzen bada: puntu 1
- 3.5.– Proiektuaren egikaritzapenean etorkinen erakunde edota kolektiboen eta beste talde etniko minoritario batzuen parte-hartzea aurreikusten bada: 2 puntu gehienez
 - Proiektuaren egikaritzapenean etorkinen elkarten parte-hartze aktiboa barne hartzen bada: puntu 1
 - Proiektuaren jardueretan parte-hartze aktiboko guneen sorkuntza planteatzen bada Iparrean baztertutako, diskriminatutako edo estigmatizatutako etorkinak ez diren kolektibo etnikoen aldetik: puntu 1



TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA



III. ERANSKINA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO BATERAKO FINANTZAKETAKO HITZARMENA PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZAK EGIKARITZEKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KARGURA 2015 EKITALDIRAKO (I. ETA II. KAPITULUA).

Vitoria-Gasteiz, 2015ekoaren(a).

BILDU DIRA:

Alde batetik, Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria

Bestetik, jauna/andrea, erakundearen legezko ordezkaria

ESKU HARTU DUTE:

Lehenak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Bigarrenak erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz, aurrerantzean erakunde esleipenduna izenarekin aipatuko dena, eta honako hau.

ADIERAZI DUTE:

1.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2015ekoaren(e)ko Ebazpen bidez (.... zenbakiko EHAA,aren ...(e)koa) proiektuentzako laguntzen deialdia egiten da garapenerako lankidetzaren kargura 2015eko ekitaldirako.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2015ekoaren(e)ko Ebazpen bidez, diru-laguntza bat eman zitzaion erakundeari,(e)ko guztizko zenbatekoarekin, garapenerako lankidetzaproiektua egikaritzeko, espediente-zenbakiarekin

3.– Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 25. artikuluan xedatukoari jarraiki (martxoaren 15eko EHAA), dekretu hori uztailearen 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuelarik (uztailearen 29ko EHAA), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak BATERAKO FINANTZAKETAKO HITZARMEN hau sinatu dute, honako klausula hauek ezarritakoaren arabera:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Hitzarmen hau “título del proyecto” garapenerako lankidetzaproiektuaren baterako finantzaketari dagokio soilik (----- espediente-zenbakia eta _____ euroko onartutako guztizko aurrekontua), Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren zuzendariaren 2015eko _____ Ebazpen bidez esleitutakoa (2015eko _____(e)ko EHAA)

Bigarrena.– Emandako diru-laguntzari dagokion euroko diru-kopurua ordainduko du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, hiru ordainketatan:



TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA



1. ordainketa: ZENBATEKOA
2. ordainketa: ZENBATEKOA
3. ordainketa: ZENBATEKOA

Hirugarrena.– Proiektuaren egikaritzapenak _____ hilabeteko iraupena izango du. Hasiera-eguna _____ izango da eta amaiera-eguna _____.

Laugarrena.– Jarri hemen erakundearen izena:

– Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak beteko ditu, baita Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan aurreikusitakoak (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen) eta 2015erako proiektuen deialdiaren ebazpenean aurreikusitakoak ere.

– Erakunde esleipendunak, proiektua garatzen ari den bitartean, bi txosten narratibo-finantzario eta amaierako txosten bat, aurrekoen informazioa gehi berria jasotzen duena, aurkeztu beharko ditu, ordainketak justifikatu behar dituen unean, www.elankidetza.euskadi.eus webgunean eskuragarri dagoen formatuaren arabera.

– Erakunde esleipendunak berehala informatu beharko dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari programaren aurreikusitako garapenean eragin nabarmena izan dezakeen edozein zirkunstantziari buruz, lehen aipatutako dekretu arautzailearen 28.1 artikuluan aurreikusitako estipulazioen arabera.

Bosgarrena.– Erakunde esleipendunak banku-kontua erabiliko du (20 digituak adierazi behar dituzte. Bankuaren izena eta helbidea gehitu behar dira) kontu espezifiko gisa eurotan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ordainketa bakoitzean transferitutako diru-kopurua kontu espezifiko horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako diru-mugimendurik egin.

Seigarrena.– Erakunde esleipendunak jakinarazten du tokiko erakundeak (tokiko erakundearen izena) edo erakunde esleipendunak proiektua egikaritzen duen herrialdean duen ordezkariak kontu espezifiko gisa erabiliko duela banku-kontu hori (kontua identifikatzeko beharrezko datu guztiak adierazi behar dira, lehen ordainketa bideratzen hastearren, eta, behar izanez gero, datu horiek alda daitezke. Bankuaren izena eta helbidea ere adierazi behar dira) proiektua kokatzen den herrialdean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko. Erakunde esleipendunetik transferitutako diru-kopuruak tokiko erakundearen berriarazko kontura transferituko dira, beharrezkoa izango den dibisan, eurotan bidaltzea komeni ez bada.

Zazpigarrena.– Erakunde esleipendunak zuhurtzia handiz erabili behar ditu funts horiek, hau da, proiektuaren helburuak lortzearen bakarrik erabili behar ditu, ahalik eta ondoen erabili ere. Tokira egin beharreko transferentzia zatitzen bada edo aurretiaz ezaguna den bolada batez ezinbestean atzeratzen bada, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeaketa hobetzeko jasotako funtsak inbertitu ahal izango dira. Funtsak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago. Honako baldintza hauek gertatzen badira bakarrik onartzen da funtsak inbertitzea:

- Arrazoi batek justifikatzen badu dirua helmugara transferitu ezin izatea.
- Aldez aurretik badakigu arrazoi horrek zenbat iraungo duen.
- Inbertsioak ez badakar diru-laguntza erakunde esleipendunak kontrolatu ezin ditzakeen kanpo-faktoreen eraginpean jartzea.
- Inbertsioa bermatuta badago, hau da, inbertitutako diru-kopurua ezin da murriztu.



TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA



Zortzigarrena.– Erakunde esleipendunak egoitzako eta helmugako kontu espezifikoetan sortutako interesak proiektuaren zuzeneko kostuen partidetan aplikatuko ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekarpenentzat hartuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea partida batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, lortutako guztizko interesen zenbatekoa eta erakundeak gastua egozteko aukeratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargurako partida edo partidak jasoko dira finantza-txostenean.

Bederatzigarrena.– Edonola ere, proiektua egikaritzeko epea amaitu aurretik transferitu behar ditu funtsak helmugara erakundeak.

Hamargarrena.– Erakunde esleipendunak egotzitako diru-kopuruen egiaztagiria aurkeztuko ditu txosten guztiekin batera. Dokumentu horiek jatorrizko dokumentuen fotokopiak izango dira. Jatorrizko dokumentu horiek aurretik bideratu beharko dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako gastuak badira; baterako beste agente finantzatzaileen kasuan, berriz, fotokopia sinpleak izango dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza egiaztatzen duten dokumentuen eginbidea zigilu bat da, eta zigilu horretan programaren izena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izena eta deialdiaren urtea adieraziko dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eta baterako beste agente finantzatzaile bati edo batzuei egotzita gastua justifikatzen duten dokumentuetan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzen zaion zenbatekoarekin batera joango da eginbidea. Dokumentu horiei guztiei dagokienez, erakunde esleipendunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du originalak non dauden adieraziz eta benetako kopiak direla berretsiz. Orobat, jatorrizko dokumentuak bost urtez gorde beharko ditu, eta aldi horretan dokumentu horiek osorik edo zati batean erakusteko eskatu ahal izango du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, emandako kopiekin alderatzeko.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Erakunde Esleipenduna
Sin.: Paul Ortega Etcheverry Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria	Sin.: Erakundearen lege-ordezkaria Bertan betetzen duen kargua:



TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA



III. ERANSKINA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO BATERAKO FINANTZAKETAKO HITZARMENA PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZAK EGIKARITZEKO LANKIDETZAREN KARGURA 2015 EKITALDIRAKO (II. ETA III. KAPITULUA).

Vitoria-Gasteiz, 2015ekoaren(a).

BILDU DIRA:

Alde batetik, Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria

Bestetik, jauna/andrea, erakundearen legezko ordezkaria

ESKU HARTU DUTE:

Lehenak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Bigarrenak erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz, aurrerantzean erakunde esleipenduna izenarekin aipatuko dena.

ADIERAZI DUTE:

1.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2015ekoaren(e)ko Ebazpen bidez (.... zenbakiko EHAA,aren ...(e)koa) proiektuentzako laguntzen deialdia egiten da garapenerako lankidetzaren kargua 2015eko ekitaldirako.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2015ekoaren(e)ko Ebazpen bidez, diru-laguntza bat eman zitzaion erakundeari,(e)ko guztizko zenbatekoarekin, garapenerako lankidetzaproiektua egikaritzeko, espediente-zenbakiarekin

3.– Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 25. artikuluan xedatukoari jarraiki (martxoaren 15eko EHAA), dekretu hori uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuelarik (uztailaren 29ko EHAA), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak BATERAKO FINANTZAKETAKO HITZARMENA hau sinatu dute, honako klausula hauek ezarritakoaren arabera:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Hitzarmen hau “título del proyecto” garapenerako lankidetzaproiektuaren baterako finantzaketari dagokio soilik (----- espediente-zenbakia eta _____ euroko onartutako guztizko aurrekontua), Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren zuzendariaren 2015eko _____ Ebazpen bidez esleitutakoa (2015eko _____(e)ko EHAA)

Bigarrena.– Emandako diru-laguntzari dagokion euroko diru-kopurua ordainduko du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, hiru ordainketatan:

TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA

1. ordainketa: ZENBATEKOA
2. ordainketa: ZENBATEKOA
3. ordainketa: ZENBATEKOA

Hirugarrena.– Proiektuaren egikaritzapenak _____ hilabeteko iraupena izango du. Hasiera-eguna _____ izango da eta amaiera-eguna _____.

Laugarrena.– Jarri hemen erakundearen izena:

Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak beteko ditu, baita Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan aurreikusitakoak (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen) eta 2015erako proiektuen deialdiaren ebazpenean aurreikusitakoak ere.

Erakunde esleipendunak, proiektua garatzen ari den bitartean, bi txosten narratibo-finantzario eta amaierako txosten bat, aurrekoen informazioa gehi berria jasotzen duena, aurkeztu beharko ditu, ordainketak justifikatu behar dituen unean, www.elankidetzaren.euskadi.eus webgunean eskuragarri dagoen formatuaren arabera.

Erakunde esleipendunak berehala informatu beharko dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari programaren aurreikusitako garapenean eragin nabarmena izan dezakeen edozein zirkunstantziari buruz, lehen aipatutako dekretu arautzailearen 28.1 artikuluan aurreikusitako estipulazioen arabera.

Bosgarrena.– Erakunde esleipendunak banku-kontua erabiliko du (20 digituak adierazi behar dituzte. Bankuaren izena eta helbidea gehitu behar dira) kontu espezifikoak gisa eurotan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko. Ordainketa bakoitzean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak transferitutako diru-kopurua berriazko kontu horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako funts-mugimendurik egin.

Seigarrena.– Erakunde esleipendunak zuhurtzia handiz erabili behar ditu funts horiek, hau da, proiektuaren helburuak lortzearen bakarrik erabili behar ditu, ahalik eta ondoen erabili ere. Funtsak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago.

Zazpigarrena.– Erakunde esleipendunak egoitzako eta helmugako kontu espezifikoetan sortutako interesak proiektuaren zuzeneko kostuen partidetan aplikatuko ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekarpenetatik hartuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea partida batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, lortutako interesen zenbatekoa eta erakundeak gastua egozteko aukeratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargurako partida edo partidak jasoko dira finantza-txostenean.

Zortzigarrena.– Erakunde esleipendunak egotzitako diru-kopuruen egiaztagiria aurkeztuko ditu txosten guztiekin batera. Dokumentu horiek jatorrizko dokumentuen fotokopiak izango dira. Jatorrizko dokumentu horiek aurretik bideratu beharko dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako gastuak badira; baterako beste finantzatzaileen kasuan, berriz, fotokopia sinpleak izango dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza egiaztatzen duten dokumentuen eginbidea zigilu bat da, eta zigilu horretan proiektuaren izena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izena eta deialdiaren urtea adieraziko dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta baterako beste agente finantzatzaileen konturako gastuak justifikatzen dituzten dokumentuetan, eginbidearekin batera Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzen zaion zenbatekoa adierazi beharko da. Dokumentu horiei guztiei

TXERTATU ERAKUNDE ESKATZAILEAREN
LOGOA

dagokienez, erakunde esleipendunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du originalak non dauden adieraziz eta benetako kopiak direla berretsiz. Orobat, jatorrizko dokumentuak bost urtez gorde beharko ditu, eta aldi horretan dokumentu horiek osorik edo zati batean erakusteko eskatu ahal izango du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, emandako kopiekin alderatzeko.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Erakunde Esleipenduna
Sin.: Paul Ortega Etcheverry Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria	Sin.: Erakundearen lege-ordezkaria Bertan betetzen duen kargua: